



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainak 11**

**Vitoria-Gasteiz, 11 de junio de 2024**

## Lehendakaritza

### **EUSKADI-BASQUE COUNTRYK PRESENTZIA ETA KANPOKO GARRANTZIA IRABAZTEN JARRAITZEN DU, NAZIOARTEKOTZEAREN AZKEN ERRADIOGRAFIAREN ARABERA**

• Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea – instituzionala eta komertziala – hazi egin da 2016tik, eta 96 herrialdetara iritsi da

2022ko Nazioartekotze Erradiografiaren azken txostena gaurko Gobernu Kontseiluan aurkeztu da, eta Euskadik nazioartean duen protagonismoa eta presentzia nabarmen handitu dela erakusten du.

Erradiografiak, guztira, 38 adierazle ditu. 38 adierazle horiek aukeratu dira adierazgarrienak direlako, konparatu ahal direlako eta denboran neurtu ahal direlako. 38 adierazle horien bidez, 10 dimentsio desberdin aztertzen dira, adibidez, erakundeak, ekonomia eta industria, kultura eta euskara, turismoa, gizartea edo garraioa.

Honako hau egiten den hirugarren erradiografia da. Lehenengoa 2016an egin zen; bigarrena, 2019an; eta, 2022an, esan bezala, hirugarrena egin da. Izan ere, helburua ez da bakarrik unean uneko argazkia lortzea; horretaz gain, euskal presentziak kanpoan izan duen garapena ere ezagutu nahi da.

Era berean, dokumentu baliotsua da Euskadi Basque Country nazioartekotzeko markoaren Estrategiak zer nolako eragina duen neurtu eta bideratzen laguntzeko.

Erakundeei helduta, azken neurketak honakoa islatzen du:

- 2016tik hazi egin da Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sarea –bai sare instituzionala, bai sare komertziala– eta 96 herrialdetara iristen gara (aurreko erradiografian baino 14 herrialde gehiagotara);
- Nazioartean, 147 lankidetzaren saretan parte hartzen da, beste gobernu batzuekin batera (2019an baino 25 gehiago);
- 196 euskal etxeek 25 herrialdetan euskal gizataldeak elkartzen dituzte.

Bestalde, 50 bat herrialdek kontsulatuak dituzte Euskadin; eta EAEn bizi diren bizilagunen % 8,8k atzerriko jatorria dute (2016an % 6,6k zuten atzerriko jatorria).

Enpresa munduari dagokionez, ehunekotan, esportaziorako euskal joera 6 puntu handitu da (% 38,3) eta euskal enpresek ia 2.600 lantegi dituzte kanpoan (2.600 horietatik 700 berriak dira).

Pandemiaren eraginez, 2019-2021 hirurtekoan, apaldu egin da atzeritik jasotako inbertsioa; hala ere, 2022an, gora egin du berriro.

Kultura dela eta, 47 irakurletza eta katedra daude munduan zehar gure hizkuntza eta kultura zabaltzeko –2016an, 41 ziren–. Eta Kirolari dagokionez, Euskadik 34 atleta olinpiko ditu.

COVIDa gorabehera, turismoak Euskadin eragindako gastua handitu egin da. Zehazki, 2022an, 2019an baino 526 milioi gehiago gastatu dira; era berean, 2019an, guztira, 3,3 milioi turista iritsi ziren Euskadira; eta, 2022an, zifra hori gainditu egin da.

Hala ere, kontuan hartu behar da 2022an, pandemiaren ondorioz, askatasunez mugitzeko mugek bere horretan jarraitzen zutela; hori dela eta, 2022an, pandemiaren aurretik baino bidaiari atzerritar gutxiago izan dira gure aireportuetan.

Erradiografiaren arabera, euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna hazten ari da, eta oso altua da. Horrela, Erasmus programan, unibertsitateko ikasleen kasuan, biztanle kopuruarengatik egokituko litzaigukeena baino % 50 handiagoa da gure pisua; lanbide heziketaren kasuan, berriz, 2,5 aldiz handiagoa.

Gizarteari erreparatuta, lau euskal herritarretatik hiruk baieztatu dute maila globalean jazotako gertakariak nahikotxo edo asko eragiten dietela, eta gero eta sentzibilitate handiagoa dago munduko arazo eta gertaerekiko. 2022an, batez beste, pertsona bakoitzak 37,2 euro bideratu zituen nazioarteko garapenean laguntzeko –2016an baino ia 12 euro gehiago–, eta Euskadik 0,969ko nota lortu du Gobernu Kalitatearen Europako Indizean, hain justu ere, 48. lekuan dago ebaluatu dituzten Europako 208 eskualdeen artean.

Nahiz eta pandemiak eragin kaltegarriak izan dituen, lortutako emaitzak ikusita, esan daiteke kanpoan presentzia eta garrantzia irabazten jarraitzen duela Euskadi Basque Countryk. Euskadi gero eta nazioartekoagoa da; erakundeek, sare sozioekonomikoak eta gero eta irekiagoa eta anitzagoa den euskal gizarteak bere posizio globala hobetu dute.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 471.600 EUROKO DIRULAGUNTZA EMAN DIO GURUTZE GORRIARI LARRIALDIEN ETA BABES ZIBILAREN ARLOAN**

- **Gurutze Gorria Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari atxikita dagoen boluntario erakundeetako bat da, eta esperientzia handia du Euskadin babes zibilaren eta herritarrei laguntza ematearen arloan**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Gurutze Gorriari 2024ko ekitaldirako 471.600 euroko dirulaguntza emateari, lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Agindu baten bidez, larrialdi-egoeretan erantzuteko baliabideak eta bitartekoak izatea sustatzeko eta Euskadiko Larrialdi Zerbitzuei laguntzeko sareak bultzatzeko, boluntariotzako erakundeei bultzada emanez.

Gurutze Gorria boluntarioz osatuta dagoen eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemari integratuta dagoen erakunde humanitarioa da, esperientzia luzea du Euskadin larrialdi-egoeretan herritarrei laguntza emateko eta babes zibileko lanetan. Horrek euskal administrazio publikoaren lankidetzararakunde eraginkorra bihurtzen du.

Akordio horrek Eusko Jaurlaritzak eta Gurutze Gorriak babes zibilaren arloan aholkuak eta gomendioak hedatzen laguntzeko konpromisoa ere jasotzen du, euskal herritarrek arriskuak eta larrialdi-egoeretan hartu beharreko neurriak hobeto ezagut ditzaten.

Segurtasun Sailari atxikitako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza arduratuko da dirulaguntza kudeatzeaz.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernua

### **EUSKO JAURLARITZAK UDALERRI GEHIAGOTARA ZABALDU NAHI DU NIK PATRIKA DIGITALA APLIKAZIOA, EUDELEKIN SINATUTAKO HITZARMEN BATEN BIDEZ**

- **NIK Patrika Digitala, 250.000 deskargara iritsi dena, telefono mugikorretik EAEko administrazioetan eta zerbitzu publikoetan identifikazio txartelak aurkezteko aukera ematen du**
- **Udalak hitzarmenari atxiki ahal izango zaizkio udalbatzaren osoko bilkuraren akordio baten bidez**

NIK Patrika Digitala tresna digitalak aukera ematen du administrazio edo zerbitzu publikoetako txartel guztiak mugikorrean modu homogeneoan eramateko eta, beraz, mugikorrean eskura izateko. Tresna horren bidez, udalerrri gehiagotara zabaldu nahi ditu zerbitzuak. Horretarako, Gobernu Kontseiluak baimena eman du gaur Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta Euskadiko Udalen Elkartearen (Eudel) arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, betiere aplikazio mugikor hori udalen esku jartzeko.

Eusko Jaurlaritzaren programan eraldaketa digitalaren arloan jasotako proiektu estrategikoetako bat den aldetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak garatu du NIK Patrika Digitala aplikazio mugikorra. Haren helburua da pertsonen eta tokiko administrazioen arteko elkarreragina hurbiltzea, gailu mugikorra erabiliz.

Aplikazio hori 250.000 deskargara iritsi da dagoeneko, eta plastikozko txartelen alternatiba eroso eta erraza da, txartel fisikoa baino seguruagoa izateaz gain. Izan ere, mugikorra galduz gero, egiaztapen bat behar da pertsonaren datuetara sartzeko. NIK, txartel fisikoa bezala, hainbat erakundetan edo zerbitzutan aurkez daiteke, hala nola farmazietan (osasun identifikazioko txartelak-OTI), udal liburutegietan, Gazte txartelean edo irakasle txartelean, bai eta aplikazioan sartuta dauden udal kiroldegietan ere. Gainera, zerbitzuak erabiltzeko, deskargatu ondoren ez da beharrezkoa gailuarekin Internetarako konexioa izatea, aplikazioaren lehen konfiguraziorako konektatuta egotea besterik ez du behar.

#### **Lankidetzaren hitzarmena**

Behin udalerrri eta toki-erakunde interesdunak hitzarmenari atxikitzen zaizkionean, Eudelek atxikipena sustatuko du eta indarrean mantenduko du atxikitako udalerrri eta toki-erakundeentzat. Horrela, administrazioek bete nahi dituzten beharrak, hobekuntzak edo eguneratzeak ase nahi dira, eta, horretarako, aplikazio hori dagokion udalaren esku jartzen da.

Udalek hitzarmenarekin bat egin ahal izango dute udalbatzaren osoko bilkurak ekimenean parte hartuko dutela berariaz erabakitzen duen akordio baten bidez. Herritarrek beren datu pertsonalak bakarrik eskuratu ahal izango dituzte, NIK aplikazio informatikoaren bidez.

## Hezkuntza

### **IKASIKER BEKETARAKO DEIALDIA, IKERKETA LANETAN LAGUNDU NAHI DUTEN UNIBERTSITATE-IKASLEENTZAT**

- **Hezkuntza Sailak 330.000 euro bideratu ditu ikasturtean zehar edo uda garaian burutu daitezkeen lankidetzak hauekarako**
- **Ikasle bekadunek euskal ikerketa sistemako zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beken deialdia egiten duen Agindua, 2024-2025 ikasturterako. Hezkuntza Sailak 330.000 euro bideratzen ditu deialdi honetarako.

Hezkuntza Sailaren Ikasiker programaren helburua da unibertsitate ikasleei aukera ematea euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarritzko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren arloan lehen urratsak egiten has daitezen.

Unibertsitate ikasleei zuzenduta deitzen dira Ikasiker beka, ikasketekin aldi berean (2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean) honako ikerketa talde hauek laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikerketa taldeetan, Oinarritzko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI), Ikerketa Kooperatiboko Zentroetan (IKZ) edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentro teknologikoetan, betiere BRTA partzuergo zientifiko-teknologikoari atxikita badaude eta Eusko Jaurlaritzak onetsitakoak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa egiaztatutakoetan.

330.000 euroko diru-kopuruarekin, 190 beka eskainiko dira, honako modalitate hauek:

- A modalitatea: ikasturtean zehar burutzeko beka, 2025eko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era. 150 beka eskaintzen dira modalitate honetan.
- B modalitatea: 2025eko udan burutzeko beka, ekainaren 1etik irailaren 30era. 40 beka eskaintzen dira modalitate honetan.

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko Graduoko titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketen-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute. B modalitatearen kasuan, Master ofizialeko ikasleak ere izan daitezke. Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetzak proiektu bat aurkeztu, lankidetzak hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

Deialdi honetara eskaerak aurkezteko epea Agindua EHAAn argitaratu (ekainaren amaieran edo uztailaren hasieran) eta hurrengo egunean irekiko da, eta 2024ko irailaren 16an itxiko da.

## Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

### **EUSKO JAURLARITZAK BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOARI LAGUNTZA ZUZENA EMATEA BAIMENDU DU, MUGI TXARTELA EZARTZEKO BIZKAIKO ITSASO, ERREPIDE ETA KABLE BIDEZKO GARRAIOAN**

Gobernu Kontseiluak baimena eman dio jarduneko Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolari Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko eta Partzuergoari 151.000 euroko zuzeneko laguntza emateko, probintziako autobusetan, kable bidezko garraioan eta itsas garraioan Mugi txartelak erabili ahal izateko. Garraio horiek guztiak Barik sistemari atxikita daude. Helburua da Gipuzkoako txartelaren erabateko elkarreragingarritasuna lortzea Bizkaiko garraio publikoan, Barik eta Mugiren arteko elkarreragingarritasuna lehen fase baten ondoren osatu denean Bilboko metro-lineetan.

Alde horretatik, Bizkaiko Garraio Partzuergoko eta Barik sistemako operadore bakoitzaren sistema eragileetan eta ezeztagailuetan ekipamenduaren egokitzapenak eta beharrezko garapenak egiteko erabiliko da laguntza (Bizkaiko Garraio Partzuergoko sistema zentralen egokitzapena, segurtasun-arloko jarduketak, eta geraleku eta geltokietan Mugi txartelak ezartzea barne). Integrazio hori Bizkaibusen, Bilbobusen eta Bizkaiko gainerako hiri-autobusetan egingo da, baita kable bidezko beste garraio bide batzuetan, Bizkaia Zubian eta Barik zerbitzuari atxikitako itsas garraio bide beste zerbitzu batzuetan ere (bidaiarien txalupak).

Hitzarmena Bat txartelarekin elkarreragingarritasuna sustatzeko 2022ko azarotik indarrean dagoenari gehitu behar zaio, eta helburua da jarduketak 2024. urtea amaitu baino lehen egitea, iazko azaroan onartutako Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Legearen bigarren xedapen gehigarriari jarraiki. Xedapen horrek ezartzen duenez, Euskadiko noizbehinkakoak ez diren garraio publikoko tituluak erabat elkarreragingarriak izango dira erkidegoko garraio bide guztietan, araua indarrean sartu eta bi urtera.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **EUSKO JAURLARITZAK ETA ABOKATUEN ELKARGOEN HITZARMEN BAT SINATU DUTE EUSKADIKO ESPETXEETAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Abokatutzaren hiru elkargoen hitzarmen bat sinatu dute espetxeetako orientazio eta laguntza juridikoko jarduerak garatzeko, eta Euskadiko espetxeetan erregimen itxi eta arruntan dauden pertsonen eskainiko zaie.

Akordioak datozen lau urteetan iraungo du, eta 342.984 euroko zuzkidura izango du 2024rako. 2023an 160.992 eurokoa izan zen aurrekontua.

Hitzarmenaren helburua da askatasunaz gabetutako pertsonen izaera juridikoko gaiei buruzko lehen kontseilu orientatzailea eta doakoa ematea, baina ezingo da esku hartu jada irekita dauden prozedura judizialetan.

Illo horretan, eta hitzarmen honen babespean, barneratuek laguntza juridiko hori jasotzeko behar diren baldintzei buruzko informazioa jaso ahal izango dute. Hala, espetxe-ordenamendu juridikoaren edukian orientatu daitezke (sailkapenak, zehapen-prozedurak, baimenak, lekualdatzeak...), edo lagundu egin daiteke espetxe-agintarien eta Justizia Sailaren aurrean idazkiak eta errekursoak jartzen, baita espetxe-zaintzako epaitegian dagozkien prozedura judizialetan dauden pertsonak ordezkatzeko eta defendatzeko ere.

Jarduerak arratsaldeko ordutegian egingo dira lanegunetan. Espetxe bakoitzean (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) espetxeetako lege-laguntzako txandako abokatu batek parte hartuko du jardunaldi bakoitzean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak egindako zerbitzuen gogobetetze-mailari buruzko ebaluazioak egingo ditu barneratuekin. Ebaluazio horien emaitzak Abokatu Elkargoetara bidaliko dira. Horiek, berriz, hiru hilean behin txosten bat egingo dute. Txosten horretan, artatutako barneratuei eta egindako kontsulten eta asistentzien tipologiari buruzko datu estatistikoak jasoko dira, besteak beste.

Azkenik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Euskal Abokatutzaren Elkargoen sinatutako akordioak jasotzen duenez, bi aldeek konpromisoa hartu dute espetxe-gaiei buruzko jardunaldiak txandaka egiteko lurralde historiko bakoitzean, espetxeetako lanarekin zerikusia duten pertsona eta erakunde guztien parte har dezaten.

Eusko Jaurlaritzak izendatutako hiru pertsonak eta Abokatu Elkargoen izendatutako beste hiru pertsonak osatutako batzorde misto batek egingo du



hitzarmenaren betearazpenaren eta bi aldeek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola.

Beste autonomia-erkidego batzuetan ez bezala, Espetxeratuen Laguntzarako Zerbitzua aktibo dago Euskadin 1987tik, gaur egun Bizkaiko Espetxea den Basaurin ibilbidea hasi zuenetik. Ondoren, 1989an, ekimena Martutenera zabaldu zen, gaur egun Gipuzkoako Espetxe Zentrora, eta jada itxita dagoen Langraiz Okara, gaur egun Arabako Espetxean dagoena. Baina orain arte ez zegoen Euskadiko Espetxe Administrazioaren eta Abokatuen Elkargoen arteko lankidetzaren baldintzak eta jarraibideak ezartzen zituen tresnarik, eta hori da hitzarmen berriak errazten duena.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 100.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DU EUSKAL KULTURA-ONDAREA DIGITALIZATZEKO, KONTSERBATZEKO ETA ZABALTZEKO**

- **Laguntza hauen helburua euskal kultura-ondarearen deskribapena eta digitalizazioa sustatzea da, ondare hori hurrengo belaunaldiei zabaldu eta transmititzeko**
- **Emaitza Euskariana-Euskal Kulturaren Atari Digitallean zabalduko da, eta eskatzaile bakoitzak disko gogor bat jasoko du dagozkion artxiboekin**

Gobernu Batzordeak euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko gaur onartu dituen diru-laguntzen helburua euskal kultura-ondarearen deskribapena eta digitalizazioa sustatzea da, ondoren Euskariana Euskal Kulturaren Atari Digitalaren bidez zabaltzeko. Horrela, euskal funts analogikoak baliabide digital estandarizatu bihurtu nahi dira, datozen belaunaldiei transmititzeko. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 100.000 euro bideratuko ditu.

Diruz lagundu ahal izango dira euskal kultura-ondarea osatzen duten kultura-baliabideak, digitalizatzea edo digitalizatzea eta katalogatzea helburu duten proiektuak, hala nola argazkiak, grabatuak, marrazkiak, ikus-entzunezko materiala, mapak, planoak, kartelak, prentsa eta funts-bibliografikoak Proiektu bakoitzerako kalkulaturako gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da, eta gutxieneko balioa ez da 2.500 eurotik beherakoa izango digitalizaziorako eta 5.000 eurotik beherakoa katalogazio eta digitalizaziorako.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte euskal kultura-ondareko baliabideen titular diren pertsona fisikoek eta erakunde publiko edo pribatuek, baliabideak jabari publikoan badaude, obra zurtzat otzen badira (horien jabetza intelektualeko eskubideen titularrak identifikatu gabe badaude edo, halakorik badago, aurkitu gabe badaude) edo titularrek dagozkien ustiapen-eskubideak badituzte.

Aurreko deialdian ezarritakoari jarraituz, diruzko laguntzak izan beharrean “gauzazko” laguntzak dira hauek. Katalogatzeko eta/edo digitalizatzeko lanak eskatzaile batzuentzat zailtasun teknikoak dituzte, baita irudien eta horiekin batera doazen deskribapenen kalitate-estandarrak bermatzeko ere. Horrela, Euskadiko Liburutegi Digitalaren Zerbitzuaren ardura izango da lan hori egitea eta eskatzaile bakoitzak disko gogor bat jasoko du dagozkion artxiboekin.

Azken emaitza Euskarianan, Euskal Kulturaren Atari Digitallean, zabalduko da, “Baliabideak bai zuzenean sartuz, zein bilduz, sustatzaile bakoitzak bere OAI-PMH (The Open Archives Initiative – Protocol for Metadata Harvesting) gordailua badu. Protokolo honek gaur egun dauden digitalizazio-proiektu nagusien arteko

elkarreragingarritasun-estandarrek garatu eta sustatzen ditu, eta Interneteko edukien zabalkunde eraginkorra errazten du. Deskribapenean zein digitalizazioan estandarren erabilera sustatzen da, euskal kultura-ondarearen baliabideak [Europeanan](#) – kultura-ondare digitalizatuaren Europako atarian – txertatzea ahalbidetzeko.

Interesdunek hilabeteko epean eskatu beharko dituzte laguntzak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

lazko deialdian 10 proiektu lagundu ziren diruz, besteak beste, “Berriz iruditan”; Idiazabalgo Zirika Irratiaren audio artxiboa; 1834-1862 urteetako Arabako Agintaritza Aldizkariko Digitalizazioa; Bilboko Liburutegi Digitala 2024; XIX. Mendeko Marqués del Riscako dokumentazioa; Iñigo Salaberriaren ikus-entzunezko funtsa; Gipuzkoako mediku elkartearen XIX-XX mendeetako aldizkariak; piano zulatuko biribilkiak; XIX. mendeko partiturak eta Arrasate Telebistaren ikus-entzunezko funtsa.

## **EUSKARIANA**

Euskariana euskal kulturari buruzko edukietara sartzeko atari digitala da eta Euskadiko Liburutegi Digitalak kudeatzen du. Euskariana euskal kultur ondarearekin zerikusia duen edozein eduki Interneten bilatzeko aukera ematen duen atari digitala da. Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen, unibertsitateen eta euskal kultura-ondarearen baliabide digitalizatuak kudeatzen dituzten erakunde pribatuen arteko lankidetzan estuan eraikitako proiektua da, eta jatorrizko euskarriak liburuak, aldizkariak, kartelak, argazkiak, diskoak edo bestelako materiala dira. Euskarianaren proiektuak orain dimentsio handiagoa izango du Europako Liburutegi Digitalan, Europeanan, sartzearekin batera.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **ARABAKO FORU ALDUNDIAREN MENDE DAUDEN LIBURUTEGIAK EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREAN INTEGRATUTA JARRAITUKO DUTE**

Gaurko Gobernu Kontseiluko bileran argi berdea eman zaio Ignacio Aldecoa kultur etxeko liburutegia eta Arabako Foru Aldundiko museoetako nahiz Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzuetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean mantentzeko hitzarmenari. Hitzarmen honek jarraipena emango dio 2018an sinatutakoari eta honek informazioaren, teknologiaren, kulturaren, hezkuntzaren eta aisialdiaren arloko baliabideak partekatzea ahalbidetuko du. Beste era batera esanda, liburutegi hauek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratuta jarraitzea herritarrei zerbitzu hobea eta osoagoa eskaintzea ekarriko du.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuak 2004an sortu zuen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea, Euskadiko liburutegi publiko guztiak biltzeko, sinergiak sortzeko eta zerbitzuak hobetzeko. Sarearen oinarria udal-titulartasuneko liburutegiak dira, baina bertan daude Arabako Foru Aldundiaren Ignacio Aldecoa liburutegia eta sartzear da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Koldo Mitxelena Kulturunea. Sarean, halaber, udalaz kanpoko titulartasuna duten beste liburutegi batzuk ere sartzear dira (Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusia, Arantzazuko Liburutegia, HABE,...). Gaur egun Euskadiko Irakurketa Publiko Sarea 198 udalerritan kokatutako 297 liburutegik osatzen dute eta 6.899.917 ale biltzen ditu.

Informazio gehiago [hemen](#).

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **BERTSOLARITZA BABES BEREZIKO KULTURA-ONDASUN INMATERIAL IZENDATU DU EUSKO JAURLARITZAK**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du izendapena jasotzen duen dekretua. Aurrerantzean bertsolaritzak babes bereziko kultura-ondasun inmaterial izendapena izango du. Euskadin izendapen hau jasotzen duen lehenengo elementua da bertsolaritza.

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak zehazten duenez “kultura-ondare immateriala deitzen da komunitateek, taldeek eta, hala badagokio, pertsonak onartzen dituzten praktikak, esamoldeak eta ezagutzak eta jakitateak, bai eta tresnak, objektuak eta lotutako kultur espazioak ere, beren kultura-ondareztat onartzen dituztenak. Kultura-ondare immaterial hori, komunitateek eta taldeek belaunaldiz belaunaldi helarazia, birsortzen dute etengabe, naturaren eta beren historiaren elkarreaginez. Ematen die identitate eta jarraipen sentimendu bat, kultura aniztasunaren errespetua eta giza sorkuntza sustatzen dutena”. Gainera legeak bertsolaritza ondare inmaterialeko kategoria bat bezala finkatzen du.

Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak 2023ko ekainean Eusko Legebiltzarrean adierazi zuenez bertsolaritza da ondare inmaterialaren “adibiderik argiena: belaunaldiz belaunaldi komunitateak transmititzen, babesten eta aitortzen jakin duen adierazpen bizia da”. Kultur ondare immaterialaren izendapen honek bertsolaritzaren babesa eta transmisioa bultzatzeko balioko du.

Gobernu Kontseiluak bertsolaritzaren babes bereziko kultura-ondasun inmaterial izendapena onartuta dekretuaren berri Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, Eudeli eta Eusko Jaularitzako Hezkuntza Sailari emango zaio. Gainera Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Bertsolaritza inskribatuko du Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan eta dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta hiru lurralde historikoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko da. Orduan sartuko da indarrean.

#### **Bertsolaritza**

Bertsolaritzaren jatorri argia ezarri ezin bada ere, argi dago Erdi Aroko ahozko literatura aberatsarekin lotuta dagoela; izan ere Europa osoan lekukotza ugari daude, hainbat metriketan. Lirika tradizional horren barruan, nabarmentzekoa da kopen aberastasuna, horietako asko gaur egunera arte iritsi baitira, adibidez Marijesiak; edo hainbat eskerako kanta, hala nola Santa Ageda bezperakoak eta abar. Hala ere, XVIII. mendearen amaierara arte itxaron behar da erreferentzia zehatzak lortzeko. Bertsolaritza oinarrizko komunikazio-modua da eta belaunaldiz belaunaldi transmititu da une bakoitzeko testuingurura egokituz. Hizkera arruntaren oso antzekoa, bat-batekotasuna, baliabide erretorikoak eta errealitatearen ezagutza eskatzen ditu. Gaur egun une onean dagoen arren, guztiz euskaraz egiten den ekimena izanik eta euskara hizkuntza gutxitua dela

kontutan izanik, euskararen erabileraren beherakada da arriskurik nabarmenena. Ezaugarri hauek bat datoz Euskal Kultura Ondarearen 2019ko Legean ageri den kultura ondare immaterialaren definizioarekin.

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 2023ko urrian hasi zuen bertsolaritza babes bereziko kultura-ondasun immaterial izendatzeko prozesua. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Zentroko Zerbitzu Teknikoen aurkeztutako ebazpen proposamen bat aintzat hartuta 2023ko urrian Kultura sailburuordearen ebazpen baten bitartez bertsolaritza babes bereziko kultura-ondasun immaterial izendatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Espediente hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren ez da alegaziorik aurkeztu eta 2024ko ekainaren 4an Euskal Kultura Ondarearen EAEko Kontseiluak aho batez aldeko txostena eman zuen. Prozesu guzti honetan Eusko Jaurlaritzak lankidetza estua izan du Bertsozale Elkartearekin.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK TURISMOA MERKATURATZEKO ETA SUSTATZEKO PROGRAMAREN LAGUNTZAK ARAUTZEN ETA DEITZEN DITUEN AGINDUA ONARTU DU**

Gaur onartu da Gobernu Kontseiluan 2024. urterako **Turismoa Merkaturatzeko eta Sustatzeko Programaren laguntzak arautu eta horien deialdia egiteko agindua**. 984.000 €-ko aurrekontua duen ekimen honen helburua da Euskadiko turismo-sektoreko enpresei produktu berriak garatzen eta merkaturatzen laguntzea, sen ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatuz. Era berean, **Euskadi Basque Country marka turistikoaren** posizionamendua sendotzea eta gauldien kopurua handitzea ere bilatzen du.

Laguntza hauen onuradun diren erakundeak **mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak** (ETE) edo horien batasunak dira, turismo-zerbitzuak ematen dituztenak, eta, berritasun gisa, deialdi berri honetan Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan (REATE) izena emanda egotea eskatzen da. Turismo-jarduera osagarriak egiten dituztenak ere sartzen dira. Bestalde, helburu soziala turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko jarduerak dituzten irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio eta erakundeak ere onuradunak izango dira.

Euskadin garatutako turismo-produktuak sortzeko, abian jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak emango dira. Ekimen horiek turismo-produktu lehiakorak, arduratsuak eta jasangarriak garatzen, merkaturatzen eta sen ekintzailea eta berrikuntzaren kultura sustatzen lagundu beharko dute.

Era berean, Euskadin egindako **kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiak** babestuko dira, nazioko eta nazioarteko proiektioa dutenak eta eskualdearen irudi eta posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzen dutenak. Ekitaldi horiek Euskadi bikaintasuneko eta lehiakortasuneko helmuga turistiko gisa posizionatzen lagundu behar dute, baita gauldien kopurua handitzen ere.

## Presidencia

### **EUSKADI-BASQUE COUNTRY SIGUE GANANDO PRESENCIA Y RELEVANCIA EXTERIOR SEGÚN LA ÚLTIMA RADIOGRAFÍA DE INTERNACIONALIZACIÓN**

- **La red exterior del Gobierno Vasco – institucional y comercial- ha crecido desde 2016 y alcanza ya a 96 países**

La última Radiografía de Internacionalización relativa a 2022, cuyo informe se ha presentado en el Consejo de Gobierno esta mañana, refleja un destacado aumento del protagonismo y presencia de Euskadi en el ámbito internacional.

La Radiografía es un instrumento que permite medir el grado de presencia global de Euskadi Basque Country y se compone de una batería de 38 indicadores seleccionados por ser relevantes, comparables y medibles en el tiempo. Corresponden a 10 dimensiones diferentes, como la institucional, economía e industria, cultura y euskera, turismo, sociedad o transporte por citar algunas de ellas.

Esta es la tercera Radiografía que se lleva a cabo; la primera se realizó en 2016, y las siguientes en los ejercicios 2019 y 2022. A través de este método de seguimiento se pretende, no sólo obtener la foto de un momento dado, sino conocer la evolución en el tiempo de la presencia vasca en el exterior. Se trata de un documento valioso para evaluar el impacto de la Estrategia marco de Internacionalización Euskadi Basque Country y para coadyuvar a su orientación.

En lo que respecta al ámbito institucional, esta última medición de 2022 refleja los siguientes aspectos:

- la red exterior del Gobierno Vasco – institucional y comercial- ha crecido desde 2016 y alcanza 96 países ( 14 más que en la anterior radiografía);
- Euskadi participa en 147 redes de colaboración con otros gobiernos a nivel internacional (25 más que en 2019);
- 196 euskal etxeak agrupan a la colectividad vasca en 25 países.

Por otro lado, medio centenar de países tienen presencia consular en Euskadi y un 8,8% de las personas que residen en la Comunidad Autónoma Vasca tiene origen extranjero (frente al 6,6 de 2016).

En el plano empresarial, destaca el aumento en 6 puntos porcentuales de la propensión exportadora vasca (38,3%) y las casi 2600 implantaciones de empresas vascas en el exterior (700 nuevas).

La inversión extranjera recibida se ha retraído en el trienio 2019-2021 debido a la pandemia, pero en 2022 se evidencia un fuerte repunte.

En lo que se refiere al ámbito de la cultura y el deporte, el último informe revela que existen 47 lectorados y cátedras que divulgan el euskera y la cultura vasca



en el mundo – en 2016 eran 41- y destaca asimismo que Euskadi cuenta con 34 nuevos atletas olímpicos.

A pesar del COVID, el gasto turístico en Euskadi ha aumentado en 526 millones de euros respecto a 2019, y se ha superado la cifra de 3,3 millones de turistas recibidos ese mismo año. Hay que recordar que en 2022 persistían las restricciones a la libre circulación y como resultado, hubo un menor número de viajeros internacionales en nuestros aeropuertos (por debajo de los datos pre-pandemia).

